2. Corresponde a la Secretaría de Estado de Función Pública la competencia para convocar los procesos selectivos de acceso a los Cuerpos y Escalas de funcionarios adscritos a dicha Secretaría de Estado, así como los correspondientes al acceso como personal laboral sujeto al Convenio Único de la Administración General del Estado, en plazas reservadas para ser cubiertas por personas que acrediten discapacidad intelectual.

3. Con el objeto de posibilitar la adecuada optimización de los recursos humanos existentes en el sector público, la Secretaría de Estado de Función Pública, previo informe preceptivo de la Secretaría de Estado de Presupuestos y Gastos sobre el impacto presupuestario, podrá autorizar a los organismos autónomos y agencias estatales y entes públicos a contratar a personal funcionario o laboral fijo con destino en Departamentos u Organismos Públicos del sector público estatal, así como en aquellos ámbitos que presenten especiales dificultades de cobertura, a reservistas de especial disponibilidad que se encuentren percibiendo, hasta el momento de la celebración del contrato, la asignación por disponibilidad en la cuantía y condiciones previstos en el artículo 19.1 de la Ley 8/2006, de 24 de abril, de Tropa y Marinería. El Ministerio de Hacienda y Función Pública, a través de la Secretaría de Estado de Función Pública, determinará el procedimiento por el cual se garantizará la publicidad y libre concurrencia en este tipo de contrataciones. Los contratos celebrados al amparo de lo establecido en este apartado, así como los contratos o nombramientos que en aplicación del apartado Dos se realicen con personal funcionario, estatutario o laboral con una relación preexistente fija e indefinida en el sector público generarán derecho, desde la fecha de su celebración, a seguir percibiendo el complemento de antigüedad en la misma cuantía que se viniera percibiendo en el Departamento Ministerial u Organismo Público de procedencia, que se actualizará conforme a lo establecido en las sucesivas leyes de Presupuestos Generales del Estado.

Siete. Seguimiento de la Oferta de Empleo Público.

Con el fin de permitir el seguimiento de la Oferta, las Comunidades Autónomas y las Universidades Públicas deberán remitir al Ministerio de Hacienda y Función Pública, a través de la Secretaría de Estado de Función Pública:

a) Una certificación, que se enviará en el mes de enero, con el número de bajas y altas tenidas en cuenta en el cálculo de la tasa de reposición, incluidas las producidas por concursos de traslado como consecuencia de los procedimientos de movilidad voluntaria entre distintas Administraciones Públicas en el año inmediato anterior.

b) La Oferta de Empleo Público publicada en el ejercicio.

c) Cualquier otra información que les sea requerida para realizar dicho seguimiento.

- d) En el caso de la tasa específica a que se refiere el apartado dos.4, y en los términos previstos por el citado precepto, será preciso remitir el instrumento de planificación que ampare la aplicación de la tasa, así como certificado que identifique las plazas afectadas.
- e) Asimismo, en el caso de ofertas de empleo público derivadas de procesos de estabilización, con el fin de permitir el seguimiento de la oferta, las Administraciones Públicas deberán certificar al Ministerio de Hacienda y Función Pública, a través de la Secretaría de Estado de Función Pública, el número de plazas estructurales ocupadas de forma temporal existente en cada uno de los ámbitos afectados.

Ocho. Autorización de contratación de personal laboral del sector público estatal.

1. En el sector público estatal están sujetos a la autorización previa del Ministerio de Hacienda y Función Pública, a través de la Secretaría de Estado de Función Pública, previo informe preceptivo de la Secretaría de Estado de Presupuestos y Gastos sobre el impacto presupuestario:

a) La contratación de personal laboral temporal y el nombramiento de funcionarios interinos y de personal estatutario temporal.

b) La contratación de personal fijo o temporal en el extranjero con arreglo a la legislación local o, en su caso, legislación española.

Nueve. Carácter básico del artículo.

Los apartados uno, dos, tres, cuatro, cinco y siete de este artículo tienen carácter básico y se dictan al amparo de los artículos 149.1.13.^a y 156.1 de la Constitución.”

III.- DEIALDIA ONARTZEKO ARAUAK

A) Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 61. artikuluan honakoa xedatzen du:

“Artículo 61. Sistemas selectivos.

1. Los procesos selectivos tendrán carácter abierto y garantizarán la libre concurrencia, sin perjuicio de lo establecido para la promoción interna y de las medidas de discriminación positiva previstas en este Estatuto.

Los órganos de selección velarán por el cumplimiento del principio de igualdad de oportunidades entre sexos.

2. Los procedimientos de selección cuidarán especialmente la conexión entre el tipo de pruebas a superar y la adecuación al desempeño de las tareas de los puestos de trabajo convocados, incluyendo, en su caso, las pruebas prácticas que sean precisas.

Las pruebas podrán consistir en la comprobación de los conocimientos y la capacidad analítica de los aspirantes, expresados de forma oral o escrita, en la realización de ejercicios que demuestren la posesión de habilidades y destrezas, en la comprobación del dominio de lenguas extranjeras y, en su caso, en la superación de pruebas físicas.

3. Los procesos selectivos que incluyan, además de las preceptivas pruebas de capacidad, la valoración de méritos de los aspirantes sólo podrán otorgar a dicha valoración una puntuación proporcionada que no determinará, en ningún caso, por sí misma el resultado del proceso selectivo.

4. Las Administraciones Públicas podrán crear órganos especializados y permanentes para la organización de procesos selectivos, pudiéndose encomendar estas funciones a los Institutos o Escuelas de Administración Pública.

5. Para asegurar la objetividad y la racionalidad de los procesos selectivos, las pruebas podrán completarse con la superación de cursos, de periodos de prácticas, con la exposición curricular por los candidatos, con pruebas psicotécnicas o con la realización de entrevistas. Igualmente podrán exigirse reconocimientos médicos.

6. Los sistemas selectivos de funcionarios de carrera serán los de oposición y concurso-oposición que deberán incluir, en todo caso, una o varias pruebas para determinar la capacidad de los aspirantes y establecer el orden de prelación.

Sólo en virtud de ley podrá aplicarse, con carácter excepcional, el sistema de concurso que consistirá únicamente en la valoración de méritos.

7. Los sistemas selectivos de personal laboral fijo serán los de oposición, concurso-oposición, con las características establecidas en el apartado anterior, o concurso de valoración de méritos.

Las Administraciones Públicas podrán negociar las formas de colaboración que en el marco de los convenios colectivos fijen la actuación de las organizaciones sindicales en el desarrollo de los procesos selectivos.

8. Los órganos de selección no podrán proponer el acceso a la condición de funcionario de un número superior de aprobados al de plazas convocadas, excepto cuando así lo prevea la propia convocatoria.

No obstante lo anterior, siempre que los órganos de selección hayan propuesto el nombramiento de igual número de aspirantes que el de plazas convocadas, y con el fin de asegurar la cobertura de las mismas, cuando se produzcan renuncias de los aspirantes seleccionados, antes de su nombramiento o toma de posesión, el órgano convocante podrá requerir del órgano de selección relación complementaria de los aspirantes que sigan a los propuestos, para su posible nombramiento como funcionarios de carrera.”

B) Halaber, abenduaren 1eko 11/2022 Legeak enplegatu publikoak hautatzeko kapitulan honakoa ezartzen du, 76 eta hurrengo artikuluetan:



“76. artikulua Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak hautatzeko sistemen irizpide orokorrak.

1. Euskal sektore publikoan, lege honen 70. artikuluan jasotako printzipioen arabera garatuko dira langileak hautatzeko prozesuak.

2. Oro har, hauetara iristeko egingo dira hautaketa-prozesuak: kidegoetara, eskaletara, titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesionaletara, langile lan-kontratudunen talde profesionaletara edo enplegatu publikoen beste taldekatze-sistema batzuetara. Era berean, salbuespen modura, lanpostuetarako eta arlo funtzionaletarako edo lanpostuak taldekatzeko ordezeko sistemetarako hautaketa-prozesuak egin ahal izango dira, hargatik eragotzi gabe lanpostua edo lanpostuak prozesua egin aurretik adskribatzea kidego, eskala edo titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesional jakin batera edo langile lan-kontratudunen talde profesional jakin batera, kontuan izanik zer identitate funtzional dagoen eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorrita. Kasu horretan, lanpostuetarako edo lanpostu-taldeetarako hautaketa-prozesuetan proba komun bat edo gehiago aurreikusi beharko dira kidego, eskala edo espezialitate jakin batera adskribatutako lanpostu guztietarako.

3. Hautaketa-prozesuek barne hartu beharko dituzte deitutako kidego, eskala, titulazio-eskakizunik gabeko lanpostu-talde edo talde profesional bakoitzari dagozkion lanpostuetan edo lanpostu-taldeetan garatu behar diren funtzioak ondo beteko direla eta zereginak efikaziaz egingo direla bermatzeko proba egokiak.

Euskal sektore publikoko enplegu batera iristeko hautaketa-prozeduretan, gutxienez proba praktikoa bat sartu ahal izango da, edo egoera praktikoa garatzeko proba bat. Proba horren bidez egiaztatuko da ondo egokitzen diren izangaien ezagutza eta trebetasunak deitutako kidegoko, eskalako, titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesionaleko edo talde profesionaleko lanpostuetan edo lanpostu-taldeetan egin beharreko zeregin nagusietara, aurreikuste aldera zeregin horiek egokiro bete edo ikasiko direla.

4. Euskal administrazio publikoetara eta haien mendeko entitateetara sartzeko hautaketa-prozesu guztietan erabili ahal izango dira, aldi berean edo txandaka, lege honen 80.2 artikuluan azaltzen diren tresnak.

5. Aurreko apartatuan aipatutako tresnez gain, proben garapenean erabil baitaitezke, praktikaldi edo probaldi bat, hautatzeko balioko duena, jar daiteke enplegu publikoetara iristeko hautaketa-prozeduretan, berdin dio karrerako funtzionarioentzat diren edo langile lan-kontratudun finkoentzat diren. Probaldi edo praktikaldi horrek prestakuntza-prozesu bat har dezake barnean.

A sailkapen-taldeko lanpostuetan eta unibertsitate-gradua edo titulu baliokidea duten pertsonak betetzen dituzten lan-kontratuko enpleguetan, probaldia sei hilabetekoa izango da, gehienez; gainerako sailkapen-taldeetan, berriz, gutxienez hiru hilabetekoa. Nolanahi ere, lan-kontratuko enpleguei aplikatzeko probaldia bateragarria izango da lan-alorreko legediak aurreikusitakoarekin.

6. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari egokituko zaio prestakuntza-ikastaro horiek antolatu edo egiaztatzea. Ikastaro horiek foru- eta toki-administrazioen eremuetan eman behar direnean, lankidetzak hitzarmen bat sinatu beharko da aurretik.



7. Horrenbestez, nagusi hierarkiko batek edo hura eskuordetzen duen batek gainbegiratu beharko du funtzionario edo langile lan-kontratudun finko izatera iristeko praktikaldia edo probaldia. Nagusi horrek edo hura eskuordetzen duen pertsonak tutore-lanak egingo ditu, eta bere ardura izango da praktiketako funtzionarioa edo probaldian dagoen langile lan-kontratuduna profesionalki orientatu edo zuzentzea. Era berean, txosten bat egin beharko du adierazteko ea izangaia egokia den ala ez deitutako kidego, eskala, titulazio-eskakizunik gabeko funtzionarioen taldekatze profesional edo talde profesional bakoitzeko lanpostuen edo lanpostu-taldeen berezko ardurak betetzeko. Txosten hori, hautaketa-organo teknikoari bidali beharko dio.

Eusko Jaurlaritzak egingo du euskal administrazio publikoetako praktikaldi edo probaldi hori egiteko inguruabarren eta baldintzen erregelamenduzko garapena, eta, horretarako, Enplegu Publikoa Koordinatzeko Euskadiko Batzordeak horri buruz adierazitako irizpideak eta jarraibideak beteko ditu.”

“78. Artikulua Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak hautatzeko sistemak.

1. Hauek dira enplegu publikora iristeko hautaketa-sistemak: oposizioa, lehiaketa eta oposizio-lehiaketa.

2. Hauek dira enplegu publikora iristeko ohiko hautaketa-sistemak: oposizioa eta oposizio-lehiaketa.

3. Oposizioan, hautaketa-probak egingo dira izangaien egokitasuna eta gaitasuna zehazteko, bai eta lehentasun-ordena finkatzeko ere. Hautaketa-probetan, lege honen 80.2 artikuluan araututako hautaketa-tresnetako bat edo gehiago sartu ahal izango dira.

4. Oposizio-lehiaketan, hautaketa-probak egingo dira, bata bestearen ondoren, eta, era berean, izangaien merezimenduak baloratuko dira, deialdiaren oinarrietan ezarritako baremoen arabera. Neurriko puntuazioa emango zaio merezimenduen balorazioari, ez dadin gerta hark berez erabakitzea hautaketa-prozesuaren emaitza. Lehiaketa-fasearen balorazioa inoiz ez da gehiago izango oposizio-fasean gehienez atera daitekeen puntuazioaren ehuneko berrogeita bost baino. Izangaien egokitasuna ziurtatzeko, kasuan kasuko hautaketa-probetako bakoitzean jarritako gutxieneko puntuazioa gainditu beharko dute izangaiek oposizio-aldian.

5. Lanpostu hauek bete daitezke lehiaketa-sistemaren bidez: ikertzaileenak eta legeak ezartzen dituenak.

6. Euskal administrazio publikoetako hautaketa-organoek ezingo dute proposatu deialdiko plaza kopurua baino izangai gehiago iristea karrerako funtzionariotzara, non eta deialdian bertan aurreikusten ez den. Beraz, zuzenbide osoz deusezak izango dira muga hori hausten duten proposamenak.

7. Aurreko apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, euskal administrazio publikoetako hautaketa-organoek izendapenerako proposatu dituzten izangaien kopurua bat datorrenean deitutako plaza-kopuruarekin, eta plazak beteko direla ziurtatze aldera, deialdia egin duen organoak hau eska diezaioke hautaketa-organoari: izangaien zerrenda osagarri bat, hasieran proposatutakoen

hurrengoek osatua, probak gainditu badituzte, jakina. Baldintza guztiak betez gero, egoera hauetan izendatuko dituzte azken izangai horiek karrerako funtzionario:

- a) Barne-sustapeneko txandan hautatuei destinoa esleituz gero betetzen ari ziren postu berean.*
- b) Hautatuek uko eginez gero izendatuak izan baino lehen edo plazak jabetzan hartu baino lehen, edo, postuaz jabetzean, postua erresebatzeko eskubiderik gabeko eszedentzia eskatuz gero, edo, besterik gabe, postuaz jabetzen ez badira.*

8. Era berean, enplegu publikoaren eskaintzan agindutako plaza kopurua gehitu ahal izango da, ehuneko hamar gehienez ere, baldin eta eskaintza onartu eta gero lanpostu hutsik sortzen bada. Dagokion deialdiak finkatu beharko du prozedurako zein fasetan gehitu plazak.

9. Hautaketa-sistema osatze aldera, praktikaldi bat edo probaldi bat jar daiteke, gainditu beharrekoa, zeinak amaieran ebaluatu beharko den prestakuntza-ikastaro bat ere sar baitezake.”

“79. artikulua Deialdiaren oinarriak.

1. Hauek sartu behar dira hautaketa-prozesuetako deialdi-oinarrietan:

- a) Zenbat plaza deitzen diren, ondo adierazita zer talde, kidego, eskala, titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesional edo talde profesionaletakoak diren.*
- b) Zehaztu beharko da zer plaza kupo gordetzen den barne-sustapeneko txandarako eta, hala badagokio, zer kupo gordetzen den desgaitasunen bat duten pertsonentzat.*
- c) Hala badagokio, zehaztu beharko da diskriminazio positiboko zer neurri jartzen den genero-indarkeriaren eta terrorismoaren biktimak enplegu publikora irits daitezen.*
- d) Zer titulu akademiko eta ezagutza eskatzen den deitutako kidego, eskala edo lan-arloko talde profesionaletako lanpostuetan edo lanpostu-taldeetan aritzeko.*
- e) Deitutako plazen hizkuntza-eskakizuna, argi adierazita zenbat plazatarako exijitzen den hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea plaza horietara iristeko, bat etorrira dagokion lanpostu-zerrendak horri buruz esandakoarekin.*
- f) Zer hautaketa-tresna erabiliko den izangaien egokitasuna egiaztatzeko, eta zer pisu ematen zaion tresna bakoitzari hautaketa-prozesuan.*
- g) Hautaketa-organoko kideen kopurua eta izaera.*
- h) Formalizatu beharreko eskabide-eredua, edo eskabideari izapidetze elektronikoa emateko helbide edo egoitza elektronikoa, bide telematikotik ere bidal baitaiteke eskabidea, ondorio guztiekin.*
- i) Zenbat iraungo duen praktikaldiak edo probaldiak, halakorik bada.*
- j) Zer sistemaren bidez emango zaien publizitatea hautaketa-prozesuaren faseei.*
- k) Tasarik badago, zenbat ordaindu behar den tasa eta haren zerga-egitatea.*

2. Aldi baterako enpleguko plazak betetzeko prozesuen oinarrietan, aurreko puntuko d), e), f), g), h) eta i) apartatueta ezarritakoa jaso beharko da gutxienez.

3. Nolanahi ere, euskal administrazio publikoetara iristeko hautaketa-prozesuetan parte hartzen dutenen eskubidea da bide elektronikoen bitartez jasotzea prozesuaren egutegiari buruzko eta prozesuaren faseen gaineko informazioa.



4. Euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionarioak edo langile lan-kontratadun finkoak hautatzeko prozesuen oinarrien publikitateari dagokionez, oinarriak kasuan kasuko aldizkari ofizialean sartuko dira, eta dagokion erakunde, entitate edo administrazio publikoaren egoitza elektronikoa argitaratuko.

Era berean, gizarte-komunikabideetan argitaratuko dira hautaketa-prozesuen deialdia eta alderdi garrantzizkoenak.

5. Deialdiaren oinarriak dagokion eremuko langileen ordezkariarekin negoziatuko dira.”

“81. artikulua Hautaketa-organoak. Hautaketa-organoen eraketarako eta jarduketarako printzipio orokorrak.

1. Euskal enplegu publikoaren hautaketa-organoek printzipio hauek hartuko dituzte jarduteko: objektibotasuna, inpartzialtasuna, autonomia funtzionala eta profesionaltasuna.

2. Hautaketa-organoetako kideak abstenitu egin beharko dira indarreko ordenamendu juridikoak aurreikusitako kasuetan.

3. Hautaketa-organoetako kideen erantzukizuna izango da: prozedura bakoitzaren gardentasuna eta objektibotasuna, proben edukia eta isilekotasuna, eta deialdiaren oinarriak zorrotz betetzea.

4. Hautaketa-organoek osaera orekatua izango dute gizonen eta emakumeen presentziaren aldetik, non eta behar bezala justifikatzen ez den hori ezinezkoa dela. Hau joko da ordezkariak orekatutzat: lau kide baino gehiago dituzten hautaketa-organoetan, sexuatariko bakoitzak gutxienez ehuneko berrogeiko ordezkariak izatea; gainerakoetan, berriz, sexu biak ordezkariak izatea.

5. Hautaketa-organoetako kide guztiek izan beharko dute gaitasun, konpetentzia eta prestakuntza egokia, eta haietako batek, gutxienez, prestakuntza edo esperientzia izan beharko du enplegu publikoaren alorreko hautatze-lanetan.

6. Epaimahaiak osatzeko orduan, espezialitate-printzipioa betetzen dela zainduko da. Gutxienez epaimahaikideen erdiek izan beharko dute titulazio hau: sarbiderako jakintza-arloa zein den, arlo horri berari dagokiona. Epaimahaikide guzti-guztiek izan beharko dute maila akademiko bereko edo goragoko titulua.

7. Inoiz ez dira hautaketa-organoetako kide izango:

- a) Hautaketa edo izendapen politikoko langileak.
- b) Behin-behineko langileak.
- c) Bitarteko funtzionarioak.
- d) Aldi baterako langile lan-kontratadunak.
- e) Azken bost urteetan izangaiak enplegu publikoan sartzeko prestatzen jardun direnak: zer talde edo kategoria profesionalean jardun diren prestakuntzan, bada haietarako.
- f) Sindikatuen, funtzionario-elkarteen edo profesionalen elkargoen izenean edo ordezkarietan diharduten langileak.

8. Hautaketa-prozesuko deialdia egiten duen organoari dagokio hautaketa-organoetako kideak izendatzea.

9. Epaimahaiek aholkulariak sartu ahal izango dituzte hautaketa-prozesuko proba guztietan edo haietako batzuetan lan egiteko. Aholkulariok, berriz, nork bere espezialitate teknikoan jardungo dute, ez beste ezertan. Aholkulariek ere jardun beharko dute objektibotasun-, inpartzialtasun- eta isilpekotasun-printzipioen arabera.

10. Epaimahaien edo hautaketa-organo teknikoen ebazpenak lotesleak izango dira izendapenak egiteko eskumena duen organoarentzat, baina organo horrek ebazpenak berrikus ditzake, administrazio-prozeduraren arloan indarrean den legerian aurreikusitakoaren arabera.

11. Euskal administrazio publikoek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskatu beharko diote karrerako funtzionario edo langile lan-kontratadun finko bat izenda dezala hautaketa-organoetarako, helburutzat hartuta hautaketa-prozesuaren garapena indartzea deialdiaren xedeko gaitako profesional adituak sartuta."

C) Azkenik, honakoak ere hartu dira kontuan oinarri arautzaileak egiterako garaian: alde batetik, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua, Toki Administrazio funtzionarioen hautaketa jardunbideek egokitu behar duten oinarritzko arauak eta gutxieneko gaitegiak xedatzen dituenak, eta, bestetik, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko Administrazio Orokorreko langilegoaren sartzea arautzen duena.

IV.- NEGOZIAZIOA ORDEZKARI SINDIKALEKIN

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikuluan c) atalean xedatutakoaren arabera, hautaketa-prozesuetako oinarri arautzaileetan ezartzen diren arauak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Horrela dio, baita ere, abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, bere 79.5 artikuluan.

Zentzu horretan, Hizkuntza-normalizazioko teknikari plazaren oinarriak ordezkari sindikalei helarazi zaizkie, eta 2025eko azaroaren 4ko negoziazio mahaian negoziatu dira, udal gobernuaren eta ordezkari sindikalen artean.

V.- ONARTZEKO PROZEDURA: ESKUMENA

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikuluan eta 102.1 artikuluan arabera, Alkateari dagokio Udaleko karrerako funtzionarioak hautatzeko zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak eta deialdia onartzea, baina, kasu honetan, lege bereko 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta ikusirik 2023/1707 ebazpena, zeinaren bitartez Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu duen karrerako



funtzionarioak zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzeko eskuduntza eta 2024/2577 ebazpena, zeinaren bitartez Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu duen karrerako funtzionarioak hautatzeko zein lanpostu finkoak hornitzeko deialdiak onartzeko eskuduntza, oinarriak eta deialdia **Tokiko Gobernu Batzarrek** onartu beharko ditu.

VI.- Bukatzeko, plaza honek aurrekontu-zuzkidura dute udal aurrekontuetan.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko ondorengo plaza betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten deialdia eta oinarriak.

Plaza	Kodea	Izena
Hizkuntza-normalizazioko teknikaria	9.102	Hizkuntza-normalizazioko teknikaria

BIGARRENA.- Deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko egoitza elektronikoan argitaratzea.



7. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENENTZAKO EGUNEKO ETA GAUEKO ARRETA ZERBITZU KONTRATUAREN LUZAPENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariak igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

BIGARRENA.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

HIRUGARRENA.- Gobernu batzarrak, 2023ko maiatzaren 19an, besteak beste, erabakia zuen bazterkeria egoeran daudenentzako eguneko eta gaueko arreta zerbitzuaren kontratua arautuko duen esleipenaren kontratazio jardunbidea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

LAUGARRENA.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2023ko abuztuaren 8ko 2023/1911 Alkatetza Dekretuaz erabaki zen PEÑASCAL S. COOP. (F48537518) enpresari adjudikatzea kontratua 786.471,44 euroko prezioan bi urtetarako, zeinari 78.647,14 euroko zenbatekoa dagokion BEZ modura, eskaintzaren prezio osoa 865.118,58 eurokoa izanik.

BOSGARRENA.- Zerbitzuak, 0500.227.04.231.10 aurrekontu-partidaz finantzatzen dira.

SEIGARRENA.- Horiek horrela, 2023ko abenduaren 1ean formalizatu zen zegozkion kontratua. Honek bi urteko iraupena du, beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

ZAZPIGARRENA.- Kontratuaren amaiera data aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak 2025eko irailaren 15ean igorritako txostenean ondorengo proposatu du:

LEHENA.- Tolosako BAZTERKERIA EGOERAN DAUDENENTZAKO EGUNEKO ETA GAUEKO ARRETA ZERBITZUAREN KONTRATUA urte bateko eperako luzatzea 2026ko azaroaren 30era arte.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Luzapenari dagokionean, bai administrazio baldintza partikularren pleguaren karatulak, baita I. eranskineko 8. puntuan eta baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 4. klausulan ere, kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango zela jaso da. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea beste urte batez luzatu ahal izango dela xedatu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikulua xedaturikoari jarraiki:

Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación.

1. La duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas, sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos.

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato, salvo que en el pliego que rija el contrato se establezca uno mayor. Quedan exceptuados de la obligación de preaviso los contratos cuya duración fuera inferior a dos meses. En ningún caso podrá producirse la prórroga por el consentimiento tácito de las partes. La prórroga del contrato establecida en este apartado no será obligatoria para el contratista en los casos en que en el contrato se dé la causa de resolución establecida en el artículo 198.6 por haberse demorado la Administración en el abono del precio más de seis meses.

BIGARRENA.- Luzapenari dagokionean, SPKLk 29. artikuluan argi zehazten da, luzapenetan kontratuaren ezaugarriak ezin izango direla aldatu:

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley.

Beraz, luzapenak ohiko izaera du eta horrela aurreikusten zenez, kontratua beste urte batez luzatzeko arazorik ez dago.

HIRUGARRENA.- Administrazio baldintza partikularren pleguan azaltzen den bezala, luzapenean prezioak ez dira berraztertuko.



LAUGARRENA.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena, kontratazio organoari dagokio. Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

*Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (2.856.976 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra izan zen kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Hala ere, 2023ko abuztuaren 7ko 2023/1894 Alkatetza Dekretuaren bidez, jarduneko alkate lehendakariak 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetutako eskumen guztiak bereganatu ztuen, baina bertan adierazten denez, hau "udaldian udal kudeaketarekin jarraitu ahal izateko" izan zen. Beraz, ulertu daiteke Tolosako Udaleko **Tokiko Gobernu Batzarra** dela kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.*

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea erreferentzian aipatutako zerbitzu-kontratua luzatzea urte batez, 2025eko abenaduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era.

BIGARRENA.- Luzapenean urtebeterako prezio hauek aplikatzea:

- Printzipala: 393.235,72 €
- BEZa (%10): 39.323,57 €
- Prezioa, guztira: 432.559,29 €

HIRUGARRENA.- Zerbitzua 0500.227.04.231.10 aurrekontu-partidaz finantzatzea.

LAUGARRENA.- Aurrekoaren ondorioz, udal kontuhartzaileak aldeko txostena igorri beharko du, eta kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumen duen organoak.

BOSGARRENA.- Organo-eskudunak luzapena onartzen badu, PEÑASCAL S. COOP. (F48537518) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatu dezaten.

SEIGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari ematea.

ZORTZIGARRENA.- Luzapen honen oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak xedatutakoaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.



8. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOSIALEAN ESKUHARTZEKO ZERBITZU KONTRATUA LUZATZEA.

9. IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen arduradunak 2024ko maiatzaren 31n igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

BIGARRENA.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

HIRUGARRENA.- 2024ko abuztuaren 19ko 2024/1896 Alkatetza Dekretuz erabaki zen Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean eskuhartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea, presakotzat jotzea eta lizitazioari hasiera ematea.

LAUGARRENA.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 19an, besteak beste, erabaki zuen NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari adjudikatzea Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua honako baldintza nagusi hauetan:

- Prezioa urtean: 608.376,32 euro, BEZa salbuetsita subjektuarengatik.

BOSGARRENA.- Zerbitzuak, 0500.227.04.231.00 aurrekontu-partidaz finantzatzen dira.

SEIGARRENA.- Horiek horrela, 2024ko abenduaren 17an formalizatu zen zegokion kontratua. Honek urtebeteko iraupena du, beste urte bat luzatzeko aukerarekin.

ZAZPIGARRENA.- Kontratuaren amaiera data aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuen arduradunak 2025eko irailaren 15ean igorritako txostenean ondorengoa proposatu du:

Lehena.- Tolosako Gizarte eta Hezkuntza Arloan eta Arlo Psikosozialean Esku-Hartzeko zerbitzu kontratua urte bateko eperako luzatzea 2026ko abenduaren 16ra arte.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Luzapenari dagokionean, bai administrazio baldintza partikularren pleguaren karatulak, baita I. eranskineko 8. puntuan eta baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 4. klausulan ere, kontratuaren hasierako iraupena urtebetekoa izango zela jaso da. Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea beste urte batez luzatu ahal izango dela xedatu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikulua xedaturikoari jarraiki:

Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación.

1. La duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas, sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos.

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato, salvo que en el pliego que rija el contrato se establezca uno mayor. Quedan exceptuados de la obligación de preaviso los contratos cuya duración fuera inferior a dos meses. En ningún caso podrá producirse la prórroga por el consentimiento tácito de las partes. La prórroga del contrato establecida en este apartado no será obligatoria para el contratista en los casos en que en el contrato se dé la causa de resolución establecida en el artículo 198.6 por haberse demorado la Administración en el abono del precio más de seis meses.

BIGARRENA.- Luzapenari dagokionean, SPKLk 29. artikuluan argi zehazten da, luzapenetan kontratuaren ezaugarriak ezin izango direla aldatu:

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley.

Beraz, luzapenak ohiko izaera du eta horrela aurreikusten zenez, kontratua beste urte batez luzatzeko arazorik ez dago.

HIRUGARRENA.- Administrazio baldintza partikularren pleguan azaltzen den bezala, luzapenean prezioak ez dira berraztertuko.



LAUGARRENA.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena, kontratazio organoari dagokio. Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organoren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organoren neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 1.277.590,27 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkatelehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako eta Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a arteko balio zenbatetsia duten kontratazioetan, alkate-lehendakariari kontratazio-organoren gisa ematen dizkion eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna.

Aipatu behar da kontratazio-organuari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea erreferentzian aipatutako zerbitzu-kontratua luzatzea urte batez, 2025eko abenduaren 17tik 2026ko abenduaren 16ra.

BIGARRENA.- Kontratuaren luzapenean urtebeterako prezio hau aplikatzea: 608.375,11 euro, BEZik gabe subjektuarengatik.

HIRUGARRENA.- Zerbitzua 0500.227.04.231.00 aurrekontu-partidaren kargura finantzatzea.

LAUGARRENA.- Aurrekoaren ondorioz, udal kontuhartzaileak aldeko txostena igorri beharko du, eta kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumen duen organoak.

BOSGARRENA.- Organo-eskudunak luzapena onartzen badu, NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatu dezaten.

SEIGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari ematea.

ZORTZIGARRENA.- Luzapen honen oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak xedatutakoaren arabera, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.



9. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEA GARATZENEN ARTEAN SINATUTAKO 2025/18 ZENBAKIDUN HITZARMENAREN 3. DOKUMENTU OSAGARRIA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2022ko abenduaren 14ko Konferentzia Sektorialaren erabakiari jarraiki, 1.980.400 euro eman zizkiola Tolosaldea Garatzen erakundeari, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoa (BEEM) izeneko aurrekontu-programaren kontura (1228 programa, 12281 azpiprograma), Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Plana finantzatzeko.

BIGARRENA.- Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zutela Tolosaldeko Turismo Jasangarritasuneko Planaren jarduketak Tolosako udalerrian gauzatzeko, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, Batasunaren funtsek finantzatuta. Europa – Next Generation EU.

HIRUGARRENA.- Tolosan garatu beharreko Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Planaren 4. ardatzeko (lehiakortasuna) 2. jardueran aurreikusitako ekintza gauzatu nahi dela eta, Tolosa Irisgarria hornidura eta zerbitzu kontratu mistoa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua-Next GenerationEU.

LAUGARRENA.- Jarduera hori gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren hirugarren dokumentu osagarria osatu eta bi alderdiek sinatzea.

BOSGARRENA.- 2025eko azaroaren 3an Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak Saileko zerbitzuburuak aldeko txosten teknikoa egin zuela.

SEIGARRENA.- 2025eko azaroaren 4an, Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisaileko Administrazio Orokorreko Teknikariak ondorengo proposamena egin zuela txosten juridikoan:

«LEHENENGOA.- Tolosaldea Garatzen SAren (IFK: A20500229) eta Tolosako Udalaren (IFK: P2007600F) artean sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren 3. dokumentu osagarria (I. ERANSKINA) onartzeko eta sinatzeko txostena egitea, Kontu Hartzailetza Azpisailak egingo duen txosten teknikoaren proposamenera baldintzatuta. Horretaz

gain, sinatutako lankidetza-hitzarmenean, 3. dokumentu osagarrian eta txosten honetan zein txosten teknikoan jasotzen diren baldintzak bete beharko dira.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako 3. dokumentu osagarria onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Sailari, eta Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak Sailari jakinaraztea».

LAUGARRENA.- 2025eko azaroaren 6an, Kontu-hartzaileak ondorengo ondorioak jaso zituela fiskalizazio txostenean:

«Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin:

ALDEKOA

OHARRA Dokumentu osagarriaren 3. puntuan komeniko litzateke zehaztea Tolosako Udalaren ekarpena gehienez ere 8.088,48 eurokoa izango dela».

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Prozedura honetan ondorengo araudia da aplikatu beharrekoa:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean, 7/1985 Legea).
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean, 19/2013 Legea).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean, 40/2015 Legea).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean, 2/2016 Legea).

BIGARRENA.- Lankidetza-hitzarmenari atxiki nahi zaion 3. dokumentu osagarria da izapidetza honetan onartu nahi dena. Beraz, lankidetza-hitzarmenean jasotako betebeharrak



eta helburuez gain, 3. dokumentu osagarri horretan jasotzen diren betebeharrak eta helburu espezifikoak ere bete beharko dituzte bi alderdiek.

Horien artean dago, besteak beste, Hitzarmen Markoaren hirugarren klausulako 1.f) atalean aipatzen den Tolosako Udalak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa. Kasu honetan, aurrekontua 80.884,78 eurokoa izango da, kopuru horren % 10a ordaintzea izango delarik gehienez ere Tolosako Udalak bere gain hartuko duen konpromiso ekonomikoa, hau da, **8.088,48 euro BEZ barne**.

HIRUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1 artikulua dioenaren arabera, Alkatea izango da organo eskuduna lankidetzaren hitzarmenaren 3. dokumentu osagarria onartzeko:

«s) Legeek berariaz aitortzen dizkieten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetakoak udalerriri esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak».

Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 zenbakidun Alkatetza Dekretuan Alkateak zenbait ahalmen eskuordetzen dizkio Tokiko Gobernu Batzarrari eta horien artean dago ondorengoa:

« 5. Lankidetzaren hitzarmenak:

Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetzaren hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak».

Beraz, Tokiko Gobernu Batzarra izango da lankidetzaren hitzarmenaren 3. dokumentu osagarria onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Garatzen S.A. (IFK: A20500229) eta Tolosako Udalaren (IFK: P2007600F) artean sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren 3. dokumentu osagarria (I. eranskina) onartzea.



BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko duen erabakiaren berri Kontu Hartzailtza eta Diruzaintza Sailari, eta Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak Sailari jakinaraztea.

10. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2025/2635 Dekretua: 2025/84 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailtza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarterena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

84. zenbakia duena, 508,20 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

84. zenbakia duena, 508,20 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/2634 Dekretua: 2025/85 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

